

**ETE, mikroenpresa eta autonomoentzako
COVIDa prebenitzeko gastu eta
inbertsioetarako laguntza ekonomiko
zuzenak eskuratzeko bigarren deialdia**

1. ZIOEN AZALPENA

Bilbao Ekintza EPEL Bilborako ekonomia- eta gizarte-aberastasunaren sorrera sustatzen duen udal-erakundea da, Bilboko Udaleko Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enplegu Sailera atxikita dagoena; horretarako, hiria inbertitzeko leku erakargarri gisa bultzatzen du eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetuz.

COVID 19ak Bilboko merkataritza-, ostalaritza- eta enpresa-sarean duen eragin ekonomiko eta soziala dela eta, eta establezimenduak higiene- eta osasun-segurtasuneko protokoloen arabera prestatzeko beharra ikusita, Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza EPELren bidez, langileen eta bezeroen segurtasuna bermatuko duen babes-materiala erosteko dirulaguntzak emateko lehengo deialdia onetsi du. (124 BAO, 2020/07/01)

Oraingo egoeraren garapena ikusita, bai eta azken egunetan osasun-arloan hartzen ari diren neurrien jarraitutasuna ere, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako egoera gogorragatik kaltetutako Bilboko enpresa-ehuna babesten jarraitu beharra dago, babes-materiala erosteak sor ditzakeen gastuei aurre egiteko.

Adierazitakoaren arabera, Bilbao Ekintza EPELren Administrazio Kontseiluak, 2020ko azaroaren 6ko saioan, saltokia, ETE eta autonomoentzako COVIDa prebenitzeko inbertsioetarako laguntza ekonomiko zuzenak eskuratzeko bigarren deialdia onetsi zuen.

2.- XEDEA

Deialdi honen xedea da langileen eta bezeroen segurtasuna bermatuko duen babes-materiala erosten laguntzea.

3- ARAUDI APLIKAGARRIA

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauek beteko ditu:

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO).
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzen duen erregelamendu-araudia.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako dirulaguntzei buruzkoa.
- Gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen I. Titulua.
- Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

4.- ENTITATE ONURADUNAK

Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak:

- Enpresa txiki eta ertaina izatea, Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, edo mikroenpresa edo autonomia izatea, baina zerga-egoitza edo egoitza soziala edo lan-zentro bat Bilbon izanda.
- Alta emanda egotea lehenengo alarma-egoera deklaratu aurretik (2020ko martxoaren 14an).
- Legez eratuta eta dagozkien erregistroetan inskribatuta egotea, eta lehenengo alarma-egoera deklaratzeko den egunean (2020ko martxoaren 14a) alta emanda egotea Gizarte Segurantzako Araubidean edo dagokion Mutualitatean.

- Egunean egotea, bai administrazio publikoekiko dagozkion zerga-betekizunetan, bai Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan. Inguruabar horiek ofizioz egiaztatu ahal izango ditu Bilbao Ekintza EPELek.
- Deialdi honen xede diren baldintzetakoren bat betetzen ez duten enpresek ezingo dute zuzenean edo zeharka % 25eko partaidetza baino handiagoa izan.

5.- AURREKONTUKO GORDAILUA

Deialdi honetarako zenbatekoa 222.750 eurokoa da. Dena den, hala gomendatzen duten interes publikoko arrazoi justifikatuak daudenean, Bilbao Ekintzak deialdi honen zenbatekoa handitu ahal izango du, 222.750 eurora arte, gehienez.

6.- EMAKIDA-PROZEDURA

Moduluen araberako hainbanaketa-araubidea aplikatuko da, eta baldintzak betetzen dituzten eskaerek dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango dute, zenbateko aldakor batekin, lortutako puntuazioa kontuan hartu gabe, kreditua agortu arte.

7.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK

COVIDa prebenitzeko gastuak eta inbertsioak baino ez dira diruz lagunduko, bai eta arrisku biologikoen aurrean norbera babesteko ekipamenduetan egindako gastua ere. Ekipo horiek honela definituta daude maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuan —langileek norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeko laneko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoa— eta/edo urriaren 16ko 1591/2009 Errege Dekretuan —osasun-produktuak arautzen dituen—, I. Eranskinean jasoak.

Balio erantsiaren gaineko zerga ez da diruz lagun daitekeen kontzeptu gisa sartuko, hura enpresa eskatzaileak kentzen ez duen kasuetan salbu.

Erakunde onuradunaren ordezkariak karguak ez dira izango inoiz dirulaguntzari egotzitako gastuen hornitzaileak, Bilbao Ekintzak aldez aurretik eta beren-beregi emandako baimenik ez badago behintzat.

Emakida erregimena

Eskaerak onartzeko, sarrera-hurrenkera kronologikoa jarraituko da. Hori dela eta, egiaztatutako gastuaren arabera, gutxieneko 300 euroen eta gehieneko 1.000 euroen arteko zenbateko aldakor bat esleitu zaie deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten eskaeren kasuan, betiere, aurrekontu-partida agortu arte. Ez dira diruz lagunduko gutxieneko zenbateko horretara iristen ez diren eskaerak.

8.- ESKAERAK

8.1. Aurkezteko epea.

Interesdunek hamar (10) egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dute eskaera, laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo eguneko 08:00etatik aurrera zenbatzen hasita.

8.2. Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilbao Ekintzaren webgunea (https://www.bilbao.eus/BilbaoEkintza/eu/index_eu.html).
- Dirulaguntzei buruzko Datu Base Nazionala (www.infosubvenciones.es).

8.3. Izapidetzea.

Eskaerak Bilbao Ekintzaren webguneko laguntzen atalean eskuragarri dagoen inprimakiaren bidez baino ez dira aurkeztuko. (https://www.bilbao.eus/BilbaoEkintza/eu/index_eu.html). Urrats guztiak jarraitu beharko dira eta aplikazioak eskatzen dituen datu guztiak sartu beharko dira.

Eskatzaileak eskaera sinatuko du, eta adieraziko du betetako datu guztiak egiazkoak direla, eta erakunde eskatzaileak ez duela dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan aurreikusitako onuradun izateko debekurik, eta eskaeran betetako datuak egiazkoak direla.

Erakunde onuradun bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahalko du. Gainera, ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, eskaera hau bateraezina izango da horietako bazkideek banaka eskatu dezaketenarekin.

Eskaera egiteko epea amaitutakoan, Bilbao Ekintzaren webgunean argitaratuko da onuradunen behin-behineko zerrenda, eta BOST (5) egun balioduneko epea emango zaie deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak aurkez ditzaten.

9.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

9.1. Aldez aurretik eskatuz gero, eskatzaileek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte PDF formatuan:

- Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskineko ereduaren araberakoa.
- EJZn alta emanda duela ziurtatzen duen agiria.
- Diruz lagundu daitekeen 300 euroko gutxieneko zenbatekoa duen faktura (edo fakturak), lehenengo alarma-egoera dekretatu zen egunaren ostean igorriak (2020ko martxoaren 14a). **Ez da albaran edo erosketa-tiketrik onartuko.** Gehienez ere, pilatutako 1.000 euroko dirulaguntza emango da (BEZ kanpo) eskatzaile bakoitzeko.

Aurreko deialdiaren entitate onuradunek (124. zk. BAO, 2020-07-01) aurreko justifikazioan aurkeztutako fakturak ez diren beste faktura batzuk aurkeztu beharko dituzte.

- Fakturaren ordainketa-ziurtagiria, bai ordainketa jasota duen fakturarekin, bai bankuko dokumentuarekin, transferentzia, helbideratze edo antzeko beste ziurtagiri bat izanda ere.

Faktura horiek ezin izango dira beste erakunde batzuetan dirulaguntzak justifikatzeko aurkeztu, egotzitako gabeko ehuneko izan ezik.

- Banku-datuen fitxa, III. eranskinean emandako ereduaren arabera, eta banku-erakundeak sinatuta eta zigilatuta.

9.2. Aipatutako datu edo dokumenturik ezean, erakunde eskatzaileari HIRU (3) egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko eskatuko zaio, eta adieraziko zaio hori egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela, beste izapiderik egin gabe.

10.- IZAPIDEAK EGITEA ETA BALORAZIOA.

Deialdi honek instrukzio organo bat du, eta hura Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Garapenerako Arloari atxikitako langile teknikoek osatzen dute.

Ebazpena

Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusia da prozedura ebazteko eskumena duen organoa.

Ebazpena emateko epea 3 (hiru) hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta ebatzi ostean, emandako dirulaguntzak jakinaraziko dira.

Gehieneko hiru (3) hilabeteko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, erakunde interesdunek dirulaguntza emateko eskaera administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzetsi dela ulertu behar izango dute.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen-erabakiaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke adjudikazioa eman zuen organoari, hilabeteko

epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, era berean zenbatuta.

11.- DIRULAGUNTZEN ORDAINKETA

Orokorrean, onartutako dirulaguntzaren zenbateko osoa justifikatu baino lehen ordainduko dira dirulaguntzak, eta inolako bermerik eskatu gabe, dirulaguntzari atxikitako jarduerak aurrera eramateko beharrezko finantzaketa gisa.

Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, emandako banku-datuen fitxan agertzen den erakundearen kontu korrontean.

Dirulaguntza ez da ordainduko, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu eta justifikatzeko epe hori amaituta badago. Halaber, dirulaguntza ez da ordainduko, pertsona edo erakunde batek aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

12.- BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRIA IZATEA

Bilbao Ekintzak eman litzakeen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandakoekin. Edonola ere, dirulaguntzen eta beste iturri batuen bidez lortutako finantzaketak ezingo du dirulaguntzaren kostua gainditu.

13.- DIRULAGUNTZEN IRAGARTZEA

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak udalaren webgunean argitaratuko dira.

Era berean, dirulaguntzen berri emango da Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.

14.- INDARREAN SARTZEA.

Deialdi hau indarrean sartuko da beronen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

15.- INTERPRETAZIOA

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdia funtsean aldatzen ez duen punturen bat garatu, aldatu, egokitu edo ezabatu behar bada, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzari emango zaio aldaketa horiek egiteko eskumena. Ondoren, horren berri emango dio Administrazio Kontseiluari, aldaketak egin eta deitzen den lehenengo bileran.